

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

3064

EBAZPENA, ekainaren 11koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bidez 2026. urterako «Zabaldu+» programaren laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen baitira eta deialdia egiten baita.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia («SPRI») zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat da, Eusko Jaurilaritzako Industria, Energia Eraldaketa eta Iraunkortasuna Sailaren mende-koa. Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek sustatzera bideratutako jarduketaz arduratzen da: industria- eta enpresa-jarduera, inbertsioa, garapen teknologikoa, dibertsifikazioa eta industria-lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapena, eta enpresa arloko ekintzailtza-jarduera.

Horri dagokionez, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak hainbat ekintza garatzen ditu euskal enpresen nazioartekotzea bultzatzeko. Jarduera horien artean, laguntza-programak aipatu behar dira, horien bidez nazioarteko posizionamendua hobetu nahi baita.

Programa hau laguntza-kontzeptu horietara bideratutako aurreko ekitaldietako programen ondorengoa da, eta helburuetan eta prozeduran modu koherentean txertatzen ditu. Zehazki, laguntza-programa hau diseinatu da hedapen fasean dauden edo dagoeneko nazioartekotuta dauden ETEen nazioartekotzea sustatzeko, haien arteko lankidetzak sustatzeko jarduerak garatzeko eta proiektu pilotuen diseinuan eta garapenean parte hartzeko.

XIII. legegintzaldiko Gobernu Programak «Hazkunde eta ongizate eredia» izeneko bigarren ardatz bat aurreikusten du, enpresen nazioartekotzearen aldeko konpromisoaren barruan. Programa honek jarraipena ematen die aurreko deialdietako Zabaldu, Sakondu, Elkartu eta Pilotu programei, eta bakarrean biltzen ditu.

Horrela, administrazioa sinplifikatzeko eta izapide burokratikoak murrizteko konpromisoa betetzen da; konpromiso hori Industria Planaren oinarria da, eta Eusko Jaurilaritzak foru-aldundiekin lankidetzan iragarritako Administrazioa Arintzeko eta Sinplifikatzeko Legearen proiektuaren ildotik doa. Konpromiso hori Gobernu Kontseiluak 2025eko irailaren 30ean onartutako Euskadi Industria Planean dago zehaztuta. Hiru ardatz estrategikoren ganean (Industria gehiago, Industria hobea eta Emisio gutxiago) eta zeharkako ardatz baten ganean (Desburokratizazioa) eraikitzen da, eta ardatz horiek eraldaketa industrialaren ikuspegi integrala islatzen dute egungo Europako testuinguruan. Ardatz estrategiko bakoitza bost lehentasun estrategikotan zehazten da, eta horiek proiektu zehatzen bidez hedatuko diren ekintza-ildoak biltzen dituzte. Hamasei lehentasunek Europako industrian abian diren trantsizio handiei erantzuten diete.

Ildo horretatik, jasangarritasunaren errealitatea euskal enpresen lehiakortasunerako elementu gisa ikusaraziko eta balioetsiko duten ekimenen alde egiten du strategiak. Horrela, euskal enpresak jasangarritasunarekin, giza eskubideen errespetuarekin, inklusibitatearen eta aniztasunaren garrantziarekin duten konpromisoa agerian uzten da, eta, aldi berean, nazioarteko jardueran emakumeek duten zeregina nabarmentzen da; hori guztia 2030 Agendaren helburuekin bat eginez. Horrela, euskal enpresak eta ekonomia bera hobeto ezagutzea espero da ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasunaren arloan.

Zabaldu+ programa tresna egokia da babes- itzuli beharrik gabeko dirulaguntza gisa- bideratzeko aholkularitza estrategiko eta operatiboko gastuak arintzeko, bai eta euskal enpresek kanpoko merkatuetara sartzeko egin behar dituzten sustapen- eta egokitzapen-gastuak arintzeko ere.

Adierazi behar da Zabaldu+ programa SPRIren 2025-2028ko aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen dela. Plan hori Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartu zen, eta Gardentasunaren Atarian argitaratu zen. Hala, programak planaren helburu hau lortzen laguntzen du: «Nazioartekotutako edo hedapen fasean dauden ETEen nazioartekotzea sustatzea, haien arteko lankidetzeta sustatzea elkarre sektorialen edo esportazio-partzuergoen bidez, eta proiektu pilotuak diseinatzea eta garatzea».

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak («20/2023 Legea») 7.2.a) artikuluan eskatzen du lege horretan aipatzen diren dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena, besteak beste, publikotasun-printzipioaren arabera egitea. Era berean, 20/2023 Legearen 8.3 artikulua dirulaguntza-mota edo -programa bakoitzaren oinarri arautzaileak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko betebeharra ezartzen du.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2026. urterako «Zabaldu+» laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horren edukia I. eranskin gisa gehitu da ebazpen honetan.

Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzan, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik izango du eragina.

Bilbao, 2026ko ekainaren 11.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendaria,
NAGORE BONILLA GABARAIN.

ERANSKINA

ZABALDU+ LAGUNTZA-PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua.– Xedea.

Zabaldur programak bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren helburuekin (XIII. legegintzaldiko gobernu-programan daude jasota), eta honako helburu hauek ditu: nazioartekotzen hasi berriak diren edo hedapen fasean dauden ETEen nazioartekotzea sustatzea, haien arteko lankidetzaren bultzatzea jarduerak garatzeko eta proiektu pilotuen diseinuan eta garapenean parte hartzea.

2. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura eta laguntzen izaera.

1.– Laguntzak emateko prozedura lehiaketaz kanpoko norgehiagoka-prozedura izango da, 20/2023 Legearen 19.2 artikuluan arautua.

2.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzak garrantzi txikiko laguntzat edo de minimis laguntzat hartuko dira, eta, beraz, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan ezarritakoaren mende egongo dira.

3.– Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Programa honen helburura bideratutako baliabide ekonomikoak 13.600.000 eurorenak dira, eta SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira. SPRIren aurrekontuak 2026rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude.

2.– Deialdira bideratutako funtsak ahitzen badira, organo eskudunak enpresa eta entitate onuradunen artean hainbanatu ahal izango du dirulaguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko osoa, 20/2023 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua.– Onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Programaren onuradun izan ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoan berezko nortasun juridikoa eta instalazioak dituzten enpresa txiki eta ertain (ETE) izaera duten pertsona juridikoak, baldin eta deialdi hau indarrean sartu aurretik eratu badira.

Eskatzaileak zerbitzu-enpresak direnean, EAEn proiektuak gauzatzeko edo nazioartera zabaldur nahi diren zerbitzuak emateko gaitasun nahikoa duen gizatalde bat izan beharko dute onuradun izateko.

Ondorio horietarako, eskatzaileak nazioartera zabaldur nahi diren proiektuak gauzatzeko edo zerbitzuak emateko EAEn lantalde bat, behar adinako gaitasuna duena, duela pentsatuko da, baldin eta:

- i) 5 langile baino gutxiago dituzten ETEak: gutxienez langileen % 50ek lantokia EAEn badute.
- ii) 5-24 langileko ETEak: gutxienez langileen % 40k EAEn izan beharko dute lantokia.
- iii) 25 eta 100 langile arteko ETEak: langileen % 25ek, gutxienez, EAEn izan beharko dute lantokia.

iv) 100 langile baino gehiago dituzten ETEak: gutxienez langileen % 10ek EAEn izan beharko dute lantokia.

Oinarri hauetan araututako laguntzetatik kanpo geratzen dira sektore hauetan jarduten duten enpresak: nekazaritza, elikagaiak, arrantza, basogintza, higiezinak, turismo-zerbitzuak eta finantza- eta aseguru-zerbitzuak.

ETEen definizioa Batzordearen 2003/361/EE Gomendioan zehaztutakoari jarraikiz aplikatzen da (2003/361/EE Gomendioa, 2003ko maiatzaren 6koa, mikroenpresen, enpresa txikien eta ertainen definizioari buruzkoa).

2.– Sortzen ari diren enpresak (Startups) programa honen onuradun gisa hartuko dira, baldin eta Garatzen ari diren Enpresen Ekosistema Sustatzeko abenduaren 21eko 28/2022 Legearen 3. artikuluan ezarritako ezaugarriak betetzen badituzte.

Era berean, programa honen onuradun gisa hartuko dira 2016ko abenduaren 31tik aurrera eratutako enpresak, baldin eta 28/2022 Legearen 3. artikuluen gainerako ezaugarriak betetzen badituzte.

3.– Onuradun izan daitezke, halaber, enpresa-lankidetzako elkarteak eta taldeak; kategoria horretan sartzen dira esportazio-partzuergoak, sustapen- eta salmenta-taldeak, bai eta juridikoki baliozkoa den beste edozein figura ere, baldin eta kanpo-merkatuetan elkarrekin jarduteko konpromisoa hartzen badute. Azken bost deialdietan Kluster programaren onuradun izan diren elkarteek ezin izango dute programa honetako laguntzarik jaso.

3.1.– Horretarako, honako baldintza hauek betetzen dituzten elkarteak izan daitezke onuradun.

a) Irabazi-asmorik gabeko entitatea izatea.

b) Deialdia EHAAn argitaratu aurretik eratuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea.

c) Bazkideen artean gutxienez 10 enpresa izatea, egoitza edo ekoizpen-instalazioa EAEn dutenak.

d) Helburu nagusietako bat izatea enpresa elkartuak nazioartekotzea.

3.2.– Esportazio-partzuergoek, enpresa-lankidetzako taldeen kategoria espezifikoko gisa, eta legez baliozkoak diren beste figura batzuek baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

a) Erakundea osatzen duten enpresa edo entitateekiko nortasun juridiko propioa eta independentea izatea, egoitza soziala edo instalazioak EAEn izatea eta deialdi hau indarrean sartu aurretik eratuak izatea.

b) Gutxienez 2 enpresaz osatuta egotea; enpresa horiek independenteak eta elkarren arteko loturarik gabekoak izan behar dute.

Kideen artean EAetik kanpo egoitza soziala duten enpresak badaude, eta enpresa horietan instalazio produktiborik ez badago, enpresa horiek taldean duten partaidetzak badutenena batuta baino txikiagoa izan behar du, eta ETE izan behar dute nahi eta nahi ez.

c) Partzuergoan egoitza soziala edo ekoizpen-instalazioa EAEn duten enpresa handiek parte hartzen duten kasuetan, enpresa horiek traktore gisa jardun beharko dute eta, gutxienez, egoitza soziala edo ekoizpen-instalazioa EAEn duten bi ETE sartu beharko dituzte.

d) Partzuergoko kudeatzaile-posturako kontratatutako pertsona bat izatea, arduraldi osoarekin.

3.3.– Nortasun juridiko propiorik gabeko lankidetzataldeek baldintza hauek bete beharko dituzte.

a) Gutxienez 2 ETEk osatu beharko dituzte. Horiek independenteak eta loturarik gabekoak izan behar dute, eta, eragiketa-sinergiekin eragindako abantailen elkarrekotasunak eraginda, kanpoko merkatuetan batera jarduteko konpromisoa hartu beharko dute, arriskuak eta kostuak partekatuz.

Kideen artean EAetik kanpo egoitza soziala duten enpresak badaude, eta enpresa horietan instalazio produktiborik ez badago, enpresa horiek taldean duten partaidetzak badutenena batuta baino txikiagoa izan beharko du, eta ETE izan behar dute nahi eta nahi ez.

b) Eskabidean berariaz adierazi beharko dira taldeko kide bakoitzak batera gauzatzeko bere gain hartutako konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren ehuneko ere. Horiek ere onuraduntzat hartuko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta horrek egingo du eskaera, onuradun gisa taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoarekin. Elkartea ezin izango da desegin 20/2023 Legearen 11. eta 43. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

4.– Ezingo dute deialdi honetako dirulaguntzarik jaso:

a) Bitartekaritza-lanak egiten edo eskatzailea ez den beste enpresa baten produktuak banatzen dituztenek, hau da, eskatzailea ez den beste enpresa baten produktuen bitartekaritza- edo banaketa-jarduera komertzialeko negozio-bolumena negozio-bolumen osoaren % 50etik gorakoa dutenek. Muga hori ez zaie partzuergoei eta elkarteei aplikatzen beren kideei dagokienez.

b) DEALen 13. artikuluan aurreikusitako eragozteko egoeraren batean daudenenek.

Zehazki, SPRIk pentsatuko du eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritako kasuetan. Hala, SPRIk pentsatuko du dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta daudela zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean, edo itzultzeko dagokion ebazpenaren inpugnazioa bertan behera uztea adostu denean.

c) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako bakarrik, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurka Borrokatzeko Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen ez dituztenek.

d) Sektore publikoren batekoak direnek edo sektore horretako kide direnek, aplikatzekoak diren sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

e) LGTBIfobia egiten, bultzatzen edo sustatzen dutenek, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne, 4/2023 Legean ezarritakoaren arabera (4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko).

f) Edozein administrazio edo sektore publikotako erakunderen aurrekontu publikoetatik datozen laguntza edo dirulaguntzei dagozkien zenbatekoak itzultzeko betebeharra dutenek. Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu laguntza publikoak ematea jatorri duen zehapen-prozedura batean zehapen irmoa jaso dutenek, ez eta mota horretako programetan parte hartzea eragozten duen beste edozein zehapen jaso dutenek ere, baldin eta zehapena betetzeko epean baldin badaude. Onuradunei dirulaguntzak eta bestelako laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren

organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzea.

g) Aurreko hiru urteetan guztira 300.000 euroko edo gehiagoko de minimis laguntza jaso duten eskatzaileak.

h) Armak edo erabilera militarreko teknologia ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen dutenek, Europako Segurtasun Estrategian sartzen ez bada.

i) Eskatzaileak berezko nortasun juridikorik gabeko lankidetzataldeak badira, eta taldekideekiko independenteak badira, paragrafo honetan ezarritako baldintzak lankidetzatalde horiek osatzen dituzten entitate edo enpresa guztietara zabaltzen dira, eta, beraz, entitate edo enpresa horiek ezin izango dute deialdiaren xede den dirulaguntzarik eskuratu, ez zuzenean, ez zeharka. Zirkuntantzia horietakoren bat gertatuz gero, emandako dirulaguntzatik kenduko dira eskaeran ezartzen den ukitutako kidearen partaidetza-proporzio berean legezkiokkeen zenbatekoak.

5.– Artikulu honetan dirulaguntzen onuradun izateko adierazitako baldintzak dirulaguntzaren eskaera aurkezten denetik ematen den dirulaguntzaren likidazioa egin arte bete beharko dira.

5. artikulua.– Proiektu pilotuen definizioa eta ebaluazio-irizpideak.

Oinarri hauen ondorioetarako, nazioarteko proiektu pilotutzat hartuko da proiektu bat atzerrian egitearen bideragarritasuna ebaluatzea eta etekin ukigarriak lortzea helburu duen inbertsioa, gutxieneko eskalan egina. Gauzatu nahi den proiektuak, zuzenean edo zeharka, onura ekarri beharko dio gauzatuko den herrialdeko biztanleria osoari, edo gutxienez haren zati handi bati. Alderdi hori egiaztatzeko, proiektuak herrialde hartzaileko entitate publikoren batekin duen zuzeneko harreman edo bitartekari gisako harremana egiaztatu beharko da, edo proiektua nola erreplikatu ahal izango den biztanleriaren mesedetan.

4.1 eta 4.2 artikuluetan definitutako entitateek nazioarteko proiektu pilotuak aurkeztu nahi badiuzte, eskabide berean aurkeztu beharko dituzte.

Proiektu pilotu berak, gehienez ere, programa honen hiru deialdi jarraitutan jaso ahal izango du laguntza, deialdi hau barne. Kasu horretan, deialdi bakoitzean aurkeztu beharko da, eta berriz ebaluatuko da, hasierako eskaerarekiko aurrerapen-mailak kontuan hartuta. SPRIren programa-deialdiren batean laguntza jaso duten proiektu pilotuek ezin izango dute laguntzarik jaso.

Proiektuaren balorazioan 50 puntu baino gehiago lortzen dituzten proiektu pilotuek jaso ahal izango dute dirulaguntza. Hauek izango dira baloratzeko irizpideak:

– 1. irizpidea: aurkeztutako proiektu pilotuaren izaera berritzailea –teknologiaren, metodologiaren eta ingurune geografikoaren arabera–: 35 puntu, gehienez. Berritzailetzat jotzeko, berrikuntza dakarten ezagutza eta teknologia berrien erabilera hartuko da kontuan, azken belaunaldiko aurrerapen teknologikoetan eta ezagutza-aurrerapenetan oinarritutakoak, kostuetan abantaila konparatiboak ematen dituztenak, beste proiektu batzuekin alderatuta, jasagarritasuna eta ezarpenaren ingurunean duen eragina kontuan hartuta betiere.

a) Kalifikazio altua: 35 puntu.

b) Kalifikazio ertaina: 20 puntu.

– 2. irizpidea: proiektuaren erreplikagarritasuna, gehienez 25 puntu.

a) Pilotua egin eta hurrengo bi urteetan atzerriko entitateak lehiaketa publikoaren xede den proiektu baten soluzio teknikoa eskalatzeko probabilitate handia: 25 puntu.

b) Pilotua egin eta hurrengo lau urteetan atzerriko entitateak lehiaketa publikoaren xede den proiektu baten soluzio teknikoa eskalatzeko probabilitate handia: 15 puntu.

– 3. irizpidea: eragina helmugan eta jasangarritasunean: 20 puntu, gehienez. Garapen Jasangarriko Helburuekiko konpromisoa baloratuko da.

– 4. irizpidea: kompetentzia, gehienez 20 puntu. Entitate laguntzailea bat dator helmugako herrialdeko agintariek zerbitzu publikoak ematearekin ezarritako politikarekin.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta gastuak.

1.– Programa honen esparruan, eskatzaileak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bere nazioartekotze-ekintzak garatzeko egiten dituen gastuak lagundu ahal izango dira, baldin eta honako hauek badira:

2.– 4.1 eta 4.2 artikuluetan definitutako ETEei dagokienez, banakako ekintzak aurkezten badiuzte, ekintza hauek lagundu ahal izango dira:

A) Eskatzailearen plangintza estrategikoa eta nazioartekotzerako egokitasuna.

a.1.– Nazioartekotze-estrategia bat egiteari lotutako gastuak, gutxienez honako epigrafe hauek jorratuko dituztenak:

– Enpresan nazioartekotze-prozesuari ekiteko dauden gaitasunak (giza gaitasuna, finantzarioa, produktiboa, logistikoa, kapital erlazionala eta aurrekoekin lotutako beste gaitasun batzuk).

– AMIA analisia kanpoko merkatuetan.

– Jorratu beharreko merkatuak: alternatibek, arriskuen eta aukeren analisia, helburu diren sektore/nitxoak eta bezeroak, helmugako lehia eta hornitzaileak.

– Sartzeko moduak aztertzea eta hautatzea.

– Produktua/zerbitzua: eskariaren analisia, erosteko arrazoiak, produktu/zerbitzuaren beharrezko egokitzapena, muga-zergen hesiak eta teknikak eta prezio-politika.

– Sustapen-politika: garatu beharreko merkataritza-ekintzak, erabili beharreko bitartekoak eta merkatuaren/merkatuen berezitasunetara egokitzeko beharra.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak nazioartekotze-estrategia egiteko kanpoko enpresa espezializatu bat kontratatzeari dagozkionak izango dira.

Dokumentuaren izaera dela eta, onuradun bakoitzeko nazioartekotze-estrategia bakarra babes-tuko da deialdi honetan.

a.2.– Jabetza industrialari eta homologazioei lotutako gastuak:

– Patenteen eta marken erregistroa: kudeaketa-gastuak diruz lagunduko dira, bai eta xede-herrialdeko erregistro ofizialetako inskripzio-tasak ere.

– Homologazioa eta ziurtapena: entitate egiaztatuek helmugako herrialdean eskatutako homologazioen ondoriozko gastuak lagunduko dira diruz, bai eta atzerrian bezero handien aurrean egindako ziurtagiriak eta aurrekalifikazioak ere.

B) Nazioarteko sustapenaren gastuak.

b.1.– Azoka, foro espezializatu eta nazioarteko kongresuei lotutako gastuak.

– Nazioarteko azoketan erakusketari gisa parte hartzea. Kasu horretan, diruz lagundu ahal izango dira honako kontzeptu hauengatik gastuak: espazioaren alokairua, erakutsi beharreko

produktuaren garraioa, standaren dekorazioa. Horrez gain, eta atzerrian egiten diren azoken kasuan bakarrik, bidaia-poltsa bat sartu ahal izango da, III. eranskinean jasotakoaren arabera, eta gehienez bi, eskatzailea enpresa berria denean.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakundek, beste administrazio publiko batzuek, EAeko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberak edo Euskal Klusterrek antolatutako nazioarteko azoka, foro espezializatu edo biltzarretan parte hartzearekin zerikusia duten gastuak kanpo geratzen dira, baldin eta finantzaketa publikoa badute.

– Azoka, foro espezializatu edo nazioarteko kongresuetan bisitari gisa parte hartzea: ordaindutako inskripzio-kuotari laguntza eman ahal izango zaio, eta, atzerrian egiten badira soilik, bidaia-poltsa bat, III. eranskinean jasotakoaren arabera; bi, enpresa sortzen ari direnentzat.

– Online formatuko azoka, foro espezializatu edo nazioarteko kongresuetan parte hartzea: inskripzio-kuota lagundu ahal izango da.

Nazioarteko azoka, foro espezializatu edo kongresuak estatuan egiten direnean, hemen agertzen badira baino ez dira lagunduko: Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren 2026ko urtarrilaren 7ko Ebazpena, 2026ko nazioarteko merkataritza-azoken egutegi ofiziala onartzen duena (BOE, 19. zk., 2026ko urtarrilaren 21ekoa).

b.2 – Bidaiengatiko gastuak.

– Merkatuak aztertzekeo edo bezero, bazkide, banatzaile edo agente potentzialekin harremanetan jartzeko prospekzio-bidaia.

– Alderantzizko misioak: bezero edo bazkide potentzialentzako gonbidapenak.

Bi kasuetan, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira bidaia-poltsak, III. eranskinean agertzen diren zenbatekoen arabera, joan-etorriek, egonaldiak eta mantenuak eragindako gastuak konpentsatzeko.

b.3.– Komunikazio- eta marketin-gastuak.

– Marketin-plana egitea, merkatu jakin batean edo merkatu-multzo jakin batean garatu beharreko ekintza zehatzak identifikatuta, gutxienez honako hauek landuko dituena:

– Egoeraren azterketa.

– Xede publikoaren definizioa.

– Marketin-helburuak.

– Marketin-estrategia.

– Ekintza-plana.

– Aginte-koadroa.

– Aurrekontua.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak arlo horretan espezializatutako kanpoko enpresa bat kontratatzeari dagozkionak izango dira.

– Zabalkunde- eta sustapen-materiala helmugako herrialdera egokitzea, hizkuntza ofizialean edo ingelesez. Ez da dirulaguntzarik emango materiala EAeko hizkuntza ofizialetan egiteko.

– Katalogoak, liburuxkak eta kartelak egitea, webguneak sortzea eta abian jartzea eta, ondoren, nazioarteko merkatura egokitzea. Webgunearen mantentze-lan hutsa eta urteko eguneratzea ez dira kontuan hartuko.

– Publizitatea: xede-herrialdean eragina duten komunikabide sektorialetan materiala sortzea eta publizitate-espazioak kontratatzea, bai eta produktua edo zerbitzua merkaturatzeko publizitate digitalaren gastuak ere.

– Produktuen edo zerbitzuen aurkezpenak, sustapenak eta aldi baterako erakusketak helmugako herrialdeko merkataritza-guneetako corner-etan.

– Harreman publikoak: xede-herrialdean produktuak edo zerbitzuak merkaturatzeko publizitate-agentziak kontratatzeako gastuak.

– Sustapen-formatu berriak garatzea, merkatuetarako sarbidea birtualki hobetzeko.

– Paper (txosten) zientifikoak argitaratzearen ondoriozko gastuak.

C) Kanpoko ezarpenak.

c.1.– Eskabidea gauzatzean eratutako kanpoko merkataritza- edo ekoizpen-ezarpenei lotutako gastuak. Zehatzago, honako gastu hauek sartzen dira kategoria honetan: eraketa-gastuak; ezarpenaren bideragarritasun-azterlana egiteko aholkularitza, negozio-planak, due diligence edo lotutako auditoretzak.

c.2.– Kanpo-eragiketei lotutako destinoko langileak hautatzeko prozesuekin lotutako gastuak, lehenengo urtean, eratze-datatik zenbatzen hasita, bai eta dagokion establezimenduetarekin lotutako alokairu- eta hornidura-gastuak ere.

D) Intereseko merkatuetan sartzeko edo posizionamendua hobetzeko aholkularitza operatiboaren gastuak.

d.1.– Kanpo-aholkularitzako gastuak, hainbat azterlan eta txosten egiteko, besteak beste: merkatu-azterlanak, aduana eta muga-zergen azterketak, intereseko merkatuetan sartzeko edo jarduten jarraitzeko aholkularitza, azoken ikerketa; jasagarritasun-txostenak, eskatzaileak xede-herrialdean duen eragina aztertzeko, 2030 Agendaren garapen jasagarriko helburuei jarraikiz; erosketa publiko berritzailean parte hartzeari buruzko azterlanak.

d.2.– Prospekzio-jarduerekin lotutako kanpo-aholkularitzako gastuak —bezeroak, bazkideak, banatzaileak edo merkataritza-agenteak bilatzea; xede-merkatuetako lan-agendak prestatzea, eta abar—, eta merkatu batean sartzeko edo merkatu horretan posizionamendua hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.

E) Barruko orduak:

Diruz lagunduko dira nazioartekotze-proiektuko jardueretan sartutako barne-orduak.

F) Helmugako herrialdeko merkataritza-agente eta -ordezkarien kostua babestuko da.

G) Proiektu pilotuak.

Laguntza jaso dezaketen gastuak proiektuaren diseinuarekin, gauzatzearekin eta emaitzak lortu eta aztertzearekin lotutakoak izango dira, balizko erreplikagarritasunari begira.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira honako hauek:

– Proiektura bideratutako langileen zuzeneko kostuak.

- Proiektuarekin zuzenean lotutako materialen eta horniduren kostuak.
- Makinak edo osagaiak garraiatzeko eta instalatzeko kostuak.
- Ziurtapen-espeditenteak proiektua amaitzean.
- Kontzeptu-probekin lotutako gastuak.

Ez dira diruz lagunduko Pilotu programaren aurreko deialdietan onartutako gastuak.

3.– 4.3 artikuluan definitutako onuradunen kasuan, ekintza hauek lagundu ahal izango dira:

A), B), D) eta F) ataletan identifikatutako gastuak. Honako berezitasun hauekin:

I.– Azoka espezializatuetan edo nazioarteko biltzarretan batera parte hartzeari dagokionez:

Laguntza jaso dezakete espazioa alokatzeak, standaren dekorazioak (erakutsi beharreko produktuak garraiatzeko kostua barne), izena emateko kuotak eta enpresa parte-hartzaile bakoitzeko bi bidaia-poltsak (azoka bakoitzeko 10 bidaia-poltsa gehienez).

a) Elkarteen kasuan: EAEn ekoizpen-instalazioa duten gutxienez hiru enpresa elkartu edo ordezkatu beharko dituzte.

b) Enpresa-lankidetzako taldeen azoka-partaidetza: erakusketari gisa, taldearen eskaintza bateratua beharko da.

II.– Misio zuzenak: nazioarteko prospekzio-bidaiak merkatuak aztertzeko edo bezero izan daitezkeen enprekin harremanetan jartzeko edo azokak bisitatzeko edo kongresu edo foro espezializatuetan parte hartzeko.

a) Elkarteen kasuan: EAEn ekoizpen-instalazioa duten gutxienez hiru enpresa elkartu lagundu edo ordezkatu beharko dituzte.

b) Enpresa-lankidetzako taldeetan, partzuergoaren gerentziak edo dagokion zuzeneko misioaren ondorioetarako enpresa-lankidetzako taldearen ordezkari gisa jarduten duen pertsonak egindako bidaiak lagunduko dira.

Gehienez ere 3 misio zuzen diruz lagunduko dira helmugako herrialde bakoitzeko, eta horietako bakoitzean, bidaia-poltsa bat entitate parte-hartzaile bakoitzeko.

III.– Alderantzizko misioak, bezero izan daitezkeenak edo atzerriko preskriptoreak gonbidatzea.

a) Elkarteen kasuan: gonbidatuek elkartea eta, gutxienez, EAEn ekoizpen-instalazioa duten hiru enpresa elkartu bisitatu beharko dituzte.

b) Enpresa-lankidetzako taldeetan: partzuergoko edo taldeko enpresak bisitatzeko gonbidapena.

Gehienez ere, alderantzizko 3 misio lagunduko dira diruz, misio bakoitzeko 10 poltsa eta enpresa bakoitzeko 2 poltsa gehienez, 1. eranskineko bidaia-poltsen arabera kalkulatuta.

IV.– Sustapen- eta hedapen-elementuak. Baterako sustapenerako materiala bakarrik onartuko da, eta material horretan parte hartzen duten enpresak identifikatu beharko dira. Partzuergoen kasuan, horien izena bakarrik onartu ahal izango da. Sustapen-elementuetako hizkuntzak herrialde horretako hizkuntza ofiziala edo ingelesa izan beharko du.

H) Nortasun juridiko propioa duten elkarte eta partzuergoen gastuak:

h.1.– Eratze-gastuak: alderdi juridiko, fiskal eta finantzarioetan izaten den kanpoko aholkularitza, erabakiak hartzeko eta partzuergoak edo bestelako enpresa-elkarreak eratzekoa.

h.2.– Partzuergoaren edo elkartearen funtzionamendu operatiboarekin lotutako gastuak: zeharkako gastutzat hartzen diren eta partekatzen diren gastuak hartuko dira halakotzat: bulegoen alokairua, hornidurak, gastu logistikoak edo taldearen sustapen-jarduerarekin lotutako beste edozein gastu partekatu, eta merkataritza-agentea edo xede-merkatuko ordezkaria hautatzeko gastuak;

h.3.– Egitura-gastuak: diruz lagunduko dira gerentziaren edo zuzendaritza profesionalaren soldata-kostu gordina (lan-kontratuarekin) edo langileak hautatzeko kanpo-kontratazioko gastuak.

h.4.– Lankidetzan gauzatzen diren nazioarteko lizitazioen esparruan eskaintzak kudeatzea eta prestatzea.

4.– Prezio publikoak dituzten erakunde publikoek egindako azterketa eta emandako zerbitzuei ez zaie laguntzarik emango.

5.– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta, oro har, zerga, tasa edo kontribuzio mota guztiak ez dira diruz lagunduko.

6.– DEALen 30.1 artikulua aurreikusi bezala, diruz lagundu daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ezin izango da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izan.

7.– DEALen 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertuko da hirugarren batekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueren azpikontrataziorako edo hirugarren kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

Nolanahi ere, azpikontratutako entitateak ezin izango du % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik izan, ez zuzenean, ez zeharka, laguntza eskatzen duen entitatean, ezta erabakitze gaitasunik ere kasuan kasuko gobernu-organismoetan.

8.– DEALen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrenen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezaugarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste entitate, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada.

Dirulaguntzaren justifikazioan edo eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handienak dituen proposamen ekonomikoa aukeratzeko ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

9.– Nolanahi ere, oinarri hauen esparruan diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira DEALen 30. artikuluekin bat datozenak.

7. artikulua.– Laguntza-eskabideak.

1.– 4.1 eta 4.2 artikuluetako eskatzaileek, baldin eta esportazio-jarduerak 2025. urtean fakturazio osoaren % 50 bada edo baxuagoa bada, eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dute deialdi honetan, gehienez ere 4 kanpo-merkatu buruzkoa.

2.– 4.1. eta 4.2 artikuluetako eskatzaileek, beren esportazio-jarduera fakturazio osoaren % 50 baino handiagoa bada, eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dute deialdi honetan, gehienez ere 2 kanpo-merkatu buruzkoa, eta 2025ean esportatutako guztizkoaren % 25 baino gutxiago fakturatu beharko dute kanpo-merkatu horietan.

3.– 4.3 artikuluko eskatzaileek eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dute deialdi honetan, gehienez ere 4 kanpo-merkatu buruzkoa.

4.– Onuradun guztiek (4.1, 4.2 eta 4.3 artikulua) eskabidean eta likidazioan gutxienez bi ekin-tza sartu beharko dituzte, II. eranskinean identifikatutako motetakoak ez diren bi motetakoak (ez dira kontuan hartuko gutxienezko tipologiak kalkulatzeko E atalean sartutako gastuak).

5.– Horrez gain, onuradun guztiek (4.1, 4.2 eta 4.3 artikulua) beste geografia batzuetan egiten diren azoka, foro espezializatu eta kongresuetan parte hartzearekin edo bisita egitearekin lotutako gastuak aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta egiaztatzen bada horien nazioarteko irismena eskatzaileak lehen aipatutako merkatuetan duen posizionamendu-estrategiarako baliagarria dela.

6.– Enpresa berak ezin izango du ekintza bateratuen laguntzaile gisa parte hartu bi eskaera baino gehiagotan (4.3.3 artikulua).

8. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu duten eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

– 1. irizpidea: nazioartekotze-proiektua: dirulaguntzaren xede diren ekimenak kokatzen diren nazioartekotze-proiektuaren kalitatea hartuko da kontuan. Irizpide honen balorazioan azterketa orokor bat egingo da, honako atal hauei esleitutako puntuazio partzialak oinarri hartuta: gaitasuna, merkatuak, sartzeko moduak, produktua/zerbitzua, proiektuaren sustapen-politika, kalitatea eta egingarritasuna, eskatzailearengan duen eragina eta ingurunean duen eragina eta koherentzia estrategikoa (kontuan hartuko da eskatzaileak nazioartekotze-proiektuari ekiteko duen gaitasuna, azken bi ekitaldietan izan duen bilakaera, fakturazioaren hazkundera eta esportazio-ibilbidea kontuan hartuta). Ikus 4. eranskina.

– 2. irizpidea: ingurunearen gaineko eragina: kontuan hartuko da EAEko lehiakortasun orokorraren gaineko eragina eta, bereziki, enplegua sortzearen gaineko eragin positiboa.

– 3. irizpidea: Gizarte Konpromisoa eta Jasangarritasuna Garapen Jasangarriko Helburuekiko konpromisoaren erakusgarri: kontuan hartuko da eskatzaileak 5. eranskinean zerrendatzen diren iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloko ziurtagiriak edo planak izatea, bai eta 2030 Agendarekin erakutsitako konpromisoa ere.

– 4. irizpidea: sektorea: jarduera-sektorea hartuko da kontuan.

– 5. irizpidea: merkatuak dibertsifikatzea: eskatzaileak hautatutako merkatuak hartuko dira kontuan.

Xede-merkatu berriak aukeratzen dituzten eskatzaileei balorazio positiboa emango zaie (aurreko ekitaldiko esportazioen arabera).

– 6. irizpidea: elkartearen/partzuergoaren ingurunean duen eragina:

EAEEn ekoizpen-instalazioak dituzten enpresa elkartuen kopurua edo partzuergoaren zati bat hartuko da kontuan.

– 7. irizpidea: ekimen jasangarrietan parte hartzea:

Global Compact edo Munduko Itunean bazkide izatea kontuan hartuko da.

Oinarri hauetako I. eranskinean puntuak esleitzeko taulak jasotzen dira, deskribatutako irizpideen haztapenaren arabera.

ETEen kasuan (4.1 eta 4.2 artikulua), 1., 2., 3., 4. eta 5. irizpideak hartuko dira kontuan.

Elkarte eta partzuergoen kasuan (4.3.1 eta 4.3.2 artikulua), 1., 4., 6. eta 7. irizpideak hartuko dira kontuan.

9. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta mugak.

1.– Eskatzaile bakoitzak onartutako aurrekontuaren arabera zehaztuko da eman beharreko dirulaguntza. Hala, onartutako aurrekontua lortzeko, eskatzaileak aurkeztutako diruz laguntzeko moduko gastu guztiak batu behar dira, II. eranskinean tipologiaren arabera onartzen diren gastu-mugak aplikatu ondoren.

2.– II. eranskinean agertzen den gastu/ekintza tipologia bakoitzeko diruz lagun daitezkeen gehieneko gastuak tipologia horren barruan sartzen diren jarduketa guztiei egotz dakiekeen gastea hartzen du. Salbuespen gisa, eskatzaileak erakusketari gisa parte hartzen duen nazioarteko azoken kasuan, 40.000 euroko muga dago azoka bakoitzeko, eta 80.000 euro azokara batera joateko. Era berean, azoka, foro espezializatu edo nazioarteko kongresuetako online bisiten edo parte-hartzeen kasuan, muga 5.000 eurokoa izango da bisita edo partaidetza bakoitzeko, eta azokan batera parte hartuz gero, berriz, 5.000 eurokoa parte-hartzaile bakoitzeko.

3.– Eskaerak prospekzio-bidaia egitea barne hartzen duenean, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko den bidaia-poltsen gehieneko kopurua 4 izango da eskatzaile bakoitzeko –sortu berriak diren enpresen kasuan (startupak), 6–, eta bidaia-poltsa bakoitzeko diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa III. eranskinean zehaztuta dago.

Aipatutako bidaia-poltsen muga, ez dira kontuan hartzen atzerriko azoketan erakusketari gisa parte hartzeagatik edo nazioarteko azoka, foro espezializatu edo biltzarretara bisitari gisa joateagatik eskatzaile bati legezkiokkeen bidaia-poltsak, oinarri hauen 6.2 artikulua b.1) idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Baterako ekintzen, elkarten edo partzuergoen kasuan (4.3 artikulua), ez da zenbatuko lehen aipatutako gehienekoa.

4.– Laguntza-eskaerak alderantzizko misioak aurreikusten dituenean, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko den bidaia-poltsen gehieneko kopurua 4 izango da eskatzaile bakoitzeko –sortu berriak diren enpresen kasuan (startupak), 6–, eta bidaia-poltsa bakoitzeko diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa III. eranskinean zehaztuta dago.

Baterako ekintzen, elkarten edo partzuergoen kasuan (4.3 artikulua), ez da zenbatuko lehen aipatutako gehienekoa.

5.– Aurkeztutako eskabideak baloratu eta kasu bakoitzean onartutako aurrekontua kalkulatu ondoren, eman beharreko laguntzen zenbatekoa honela zehaztuko da:

– 50 eta 59,99 puntu (biak barne) arteko puntuazioa lortzen duten espedientei onartutako aurrekontuaren % 45eko laguntza emango zaie.

– 60 eta 74,99 puntu (biak barne) arteko puntuazioa lortzen duten espedientei onartutako aurrekontuaren % 55eko laguntza emango zaie.

– 75 puntu edo gehiagoko balorazioa lortzen duten espedientei onartutako aurrekontuaren % 70eko laguntza emango zaie.

– 50 puntura iristen ez diren espedienteek ez dute Zabaldur programaren laguntza publikorik jasoko, eta SPRIren Nazioartekotze Zuzendaritzaren ebazpen bidez ezetsiko dira.

6.– Gehieneko dirulaguntza hau izango da:

a) 75.000 euro, eskatzaile bakoitzak aurkeztutako banakako ekintzetarako. 6.2.G artikuluan jasotako gastuak (proiektu pilotuei dagozkienak) ez dira zenbatuko gehieneko dirulaguntza kalkulatzeko.

b) 75.000 euro oinarrietako 4.3.1 eta 4.3.2 artikuluetan definitutako onuradunek batera aurkezten dituzten ekintzetarako.

c) Eskatzaileek nortasun juridiko propiorik ez duten partzuergo edo lankidetzataldeekin batera aurkezten badituzte ekintzak (4.3.2 eta 4.3.3 artikuluetan), taldean duten partaidetzataldeekin batera arabera kalkulatu da lortutako dirulaguntza. Enpresa bakoitzeko dirulaguntza gehienez 110.000 eurokoa izango da (banakako ekintzetarako eta baterako ekintzetarako). 6.2.G artikuluan jasotako gastuak (proiektu pilotuei dagozkienak) ez dira zenbatuko gehieneko dirulaguntza kalkulatzeko.

Onartutako dirulaguntzak 110.000 euroko muga gainditzen badu, esleitutako dirulaguntza banakako ekintzetara egokituko da. Doikuntza egin ondoren, onartutako dirulaguntzak ezarritako muga gainditzen badu, egokitzapena jarduketan espedienteen gainean egingo da, multzoka, haiek aurkeztu ziren ordenaren alderantzizko ordenan.

Nolanahi ere, 3.2 artikuluan xedatutakoa beteko da, baldin eta zuzkidura osoa ez bada iristen eskabide guztiei erantzuteko paragrafo honetan ezarritako ehunekoetan.

10. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Oinarri hauen babesean lortutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira administrazio publikoek edo entitate pribatuek emandako beste edozeinekin, baldin eta entitate onuradunek xede bererako jaso badituzkete, betiere zenbatekoak ez badu gainditzen diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100. Muga hori gaindituz gero, oinarri hauen arabera emandako laguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

2.– Aurrekoa gorabehera, de minimis dirulaguntzak metatzeko araubidea aplikatuko da, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan laguntza horiei edo Europar Batasunaren esparruan horretarako emandako beste jarraibide edo xedapen batzuei buruzkoan xedatutakoaren arabera.

11. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2026ko irailaren 15ean amaituko da. Hala ere, jendurako arreta 2026ko irailaren 15eko 15:00etan amaituko da.

2.– Eskabideak SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzara bidali behar dira, eta laguntza-deialdi honetatik eratorritako izapide guztiak bitarteko elektronikoen bidez egin behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, helbide honetan: www.spri.eus/es/ayudas/zabalduplus/

3.– Betetako eskabidearekin batera, pertsona edo entitate eskatzailearen sinadura aitortuaz gain, hurrengo artikuluan aipatzen den dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

4.– Eskaera, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, hautatutako hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Halaber, eskaeratik eratorritako jardueretan, eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko Oinarrizko 10/1982 Legean ezarritakoaren arabera.

5.– Eskatzaileak uko egin diezaioke zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete-zeari buruz erakunde emaileak ofizioz egindako kontsultari. Kasu horretan, betebeharroriek betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, eskatzen zaion guztietan.

12. artikulua.– Eskaeren edukia eta atxikitako dokumentazioa.

1.– Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Entitate eskatzailearen behar besteko ahalordea duen legezko ordezkariak behar bezala betetako eta izenpetutako eskabide telematikoa. Eskabide horretan, entitateari eta proiektuari buruzko datuak jasoko dira, proiektua behar bezala baloratzeko oinarri izango direnak.

b) Entitate eskatzailearen eskriturak eta ordezkari-taldea. Eraketa-gastuekin lotutako laguntza eskatzen bada, eskaera aurkezteko unean kanpoko zerbitzuaren kostuaren kontratua edo aurrekontua erantsi beharko dira. Nortasun juridiko propiorik gabeko taldeen baterako ekintzak barne hartzen dituzten eskabideetarako (4.3.3 artikulua), entitate laguntzaileen eskriturak eta ordezkari-taldea aurkeztu beharko dira.

c) Emandako kontu korrontearen banku-titulartasunaren ziurtagiria, dagozkion ordainketak egiteko.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, eta EJRn alta emanda dagoela egiaztatzen dutenak, baldin eta SPRIk ofizioz egiaztatzearen aurka badago. Baterako ekintzak aurkeztuz gero, enpresa laguntzaileen ziurtagiriak erantsi beharko ditu eskatzaileak.

e) Honako alderdi hauei buruzko informazioa:

– Aurreko hiru urteetan emandako de minimis laguntzen zerrenda, emate-data, erakundea, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.

– Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen eta, hala bada-gokio, noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zer programaren barruan eta zenbatekoa izan zen laguntza.

– Eskatzailearen tamaina zehazteko datuak, hau da, enpleguaren urteko datuak, haren negozio-bolumena eta balantze orokorra, eta, hala bada-gokio, harekin elkartutako edo lotutako gainerako enpresena, bai eta taldearen datu globalak ere, talde osoaren antolamendu-eskema bat jasoko duena partaidetzekin eta enplegu-datuekin, negozio-bolumenarekin eta balantzearekin; hori guztia, laguntzak eskatu aurreko bi ekitaldiei dagokienez.

– Startupek, era berean, 4.2 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen direla justifikatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

f) Oinarri arautzaile hauen eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena.

g) 6.2.C) artikuluan jasotako gastuei lotutako laguntza eskatuz gero, enpresa-ezarpenera eratu dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

h) Enpresei emandako 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan soilik, egiaztatu behar da merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak bete direla. Egiaztapena erantzukizunpeko adierazpenaren bidez edo ROACen inskribatutako auditorearen ziurtagiriaren bidez egingo da.

i) Proiektu pilotuei lotutako laguntza eskatuz gero, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Eskatzailearen eta helmugako herrialdeko erakunde publiko edo enpresa pribatu baten arteko kontratua edo lankidetzak-hitzarmena. Helmugako herrialdeko enpresa pribatu batekin izanez gero, enpresak lankidetzak-hitzarmen bat izan beharko du, edo indarreko kontratu bat helmugako herrialdeko erakunde edo organismo publiko batekin, edo enpresaren eta herrialdeko erakunde publikoen artean lankidetzak publiko-pribatua dagoela egiaztatzen duen agiri bat.

– Laguntza eskatzen den proiektu pilotuaren memoria, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituenak: helburua, irismena, metodologia, aurrekontua eta gauzatzeko epea.

– Eskatzaileak proiektu pilotuan garatu beharreko produktua helmugako herrialdean ez duela saltzen dioen erantzukizunpeko adierazpena.

j) Enpresa-lankidetzako taldeen kasu partikularrerako, aurreko puntuan adierazitako dokumentazioaz gain, honako hau aurkeztu behar da:

– Enpresen edo entitateen arteko lankidetzak-akordioa, kontratua edo beste edozein dokumentu, zalantzarik gabe alderdien arteko konpromisoa egiaztatzen duena.

– Enpresa-lankidetzarako taldearen jarduerak-plana. Eraketa-gastuekin lotutako laguntza eskatzen bada, eskaera aurkezteko unean kanpoko zerbitzuaren kostuaren kontratua edo aurrekontua erantsi beharko dira.

2.– Era berean, eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko, halakorik badu, 2030 Agendarekiko konpromisoa eta giza eskubideei dagokienez proiektuak jatorrian edo helmugan duen eraginaren justifikazioa aurkeztu beharko da, hala badagokio, ingurumen-jasangarritasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloko ziurtagiriaren bidez egiaztatuta (5. eranskina).

3.– Nolanahi ere, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak eskatzaileari eskatu ahal izango dio aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio osagarri guztia.

SPRIk ofizioz egiaztatuko du honako baldintza hauek betetzen direla:

– Euskal Autonomia Erkidegoan produkzio-jarduerarako zentro bat dutela.

– Euskadiko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda daudela.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela.

Hala ere, eskatzaileak aurka egin ahal izango du, eta, kasu horretan, kasuan kasuko organo eskudunak emandako administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu.

13. artikulua.– Zuzentzeak.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat edo zehaztasun faltaren bat dagoela, eskatzaileei jakinaraziko die, eta 10 egun balioduneko epea emango die akats edo zehaztasun horiek zuzen ditzaten, eta adieraziko die ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

14. artikulua.– Eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Entitate laguntzailearen eginkizunak.

1.– Dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango direnez, balorazio-batzorde bat eratuko da espedienteak aztertzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, 8. artikuluan jasotako irizpide eta puntuazioen arabera ebaluatzeko eta horiei dagozkien txosten teknikoak egiteko. Horretarako, edozein unetan eskatu ahal izango du behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio osagarri guztia.

Proiektuen jarraipena egiteko sortutako Balorazio Batzordeak 3 kide izango ditu:

– Presidentea: Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakundeko zerbitzu eta programen zuzendaria.

– Ordezkoa: Rubén Reoyo. Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakundeko arduradun juridikoa.

– Batzordekideak:

– Inés Soto. Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakundeko programetako teknikaria.

– Ordezkoa: Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakundeko programetako teknikaria.

– Idazkaritza:

– Idazkaria: SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Programen arduraduna.

– Ordezkoa: Itziar Gaviña. SPRIren Nazioartekotze Programen teknikaria.

Organo kudeatzaileak, espedientea eta balorazio-batzordearen balorazioa ikusita, laguntza emateko proposamena idatziko du, eta SPRIren Nazioartekotze Zuzendaritzari zuzendu.

2.– Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren erakunde laguntzailea izango da programa honetan, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Bidalitako dokumentazio teknikoa aztertzea.

b) Egindako gastu hautagarriak behar bezala gauzatzen direla ikuskatzea.

c) Proiektuaren garapenarekin lotuta egoki irizitako egiaztapenak egitea. Onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute.

d) Egindako ikuskapenen txostenak egitea.

e) Gerta daitezkeen gorabeherak SPRIri jakinaraztea.

15. artikulua.– Dirulaguntzen ebazpena eta argitalpena.

1.– SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariak ebatziko ditu laguntzak, norgehiagoka-erregimenean, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio. Ebazpen horren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze zuzendariari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epean eta moduan. Bertan, emandako laguntzaren de minimis izaera adieraziko da.

2.– Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta gehienez ere 6 hilabete epean eman eta jakinarazi beharko da ebazpen hori. Epearen barruan ebazpenik ematen ez bada, ezesteko ebazpentzat hartuko da.

3.– Ebazpenak honako hauek jasoko ditu: entitate onuraduna, aurkeztutako eta onartutako gastuen aurrekontua, dirulaguntzaren zenbatekoa, justifikazio-fasea amaitu arte egin beharreko urratsak eta fase horretan aurkeztu beharreko dokumentazioa. Ebazpenean de minimis laguntza bat dela adieraziko da.

4.– Emandako laguntzen berri denek izan dezaten, SPRIren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

16. artikulua.– Laguntzen ordainketa eta justifikazioa.

1.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, honela:

– Dirulaguntzaren % 25, emandako laguntza onartu ondoren edo, hala badagokio, oinarri hauen 17. artikuluan ezarritako hamabost eguneko epea igaro ondoren.

– gainerako % 75a, lagundutako ekintzak egitean egindako gastuak justifikatu ondoren.

Ez da inolako ordainketarik egingo baldin eta onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketa-ebazpen baten bidez zorduna bada.

2.– Justifikazio-dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da <https://www.spri.eus/laguntzak/zabalduplus/> helbidean, onuradunaren legezko ordezkariaren sinadurarekin, laguntza emateko ebazpena jasotzen denetik 2027ko otsailaren 26ra arte. Hala ere, jendaurreko arreta 2027ko otsailaren 26ko 15:00etan amaituko da.

3.– Dokumentazio horrek honako hauek jaso beharko ditu:

– Dirulaguntzaren bidez finantzatutako jarduerak bete direla justifikatzeko memoria.

– Langileen zuzeneko kostua (barne-orduak edo gerentearen soldata gordina) justifikatzeko, enpresak 10T eta LZN (Langileen Zerrenda Nominala) ereduak aurkeztu beharko ditu, bai eta proiektuan diharduten langileen lan-partea ere, proiektuan emandako orduak eta dagokion langile-kostuaren kalkulua zehaztuta. Gainera, ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte.

– Ekintza eta zenbateko bakoitzeko gastuen zerrenda sailkatua.

– Onartutako gastuen fakturak, kostuen banakapenarekin, jaulkipen-datarekin eta hornitzailearen identifikazioarekin, bai eta ordainketa-egiaztagiriak ere, zenbatekoa eta ordainketa-data adierazita. Gastuak auditoretza-txostenaren bidez ere egiaztatu ahal izango dira.

– Egindako prospekzio-bidaiak eta alderantzizko misioak justifikatzeko, garraio-txartelak eta ostatu-fakturak aurkeztu beharko dira, benetan ordaindu direla egiaztatuta. Ezin da norberaren

ibilgailurik edo taxirik erabili. Justifikazio-memorian bidaiaren arrazoia, bidaiariaren kargua, bisitatutako bezeroa/hornitzailea eta bisita-datak jasoko dira.

– Lagundutako aholkularitza estrategikoko edo operatiboko azterlanen, nazioartekotze-estrategien eta marketin-planen kasuan, horien kopia osoa aurkeztu beharko da.

– Helmugako herrialdean merkataritza-agenteak eta merkataritza-ordezkariek justifikatzeko, merkataritza-kontratua aurkeztu beharko da.

– Hainbat hornitzailearen eskaintzak, DEALeko 30.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.1.– Proiektu pilotuen kasuan, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Proiektuaren burutzapenari, diseinuari eta garapenari buruzko memoria, bai eta diruz lagundutako proiektuaren izaerari zalantzarik gabe erantzuten dioten jarduera guztiei buruzkoa ere.

b) Proiektuaren atzerriko organismo laguntzaileak egindako obra/proiektua jasotzeko akta, proiektu pilotua amaitzen den urtea bada.

c) Langileen zuzeneko kostua justifikatzeko, ordu-kostua egiaztatu beharko da, eta, horretarako, honako hauek aurkeztu beharko dira:

c.1.– Urteko lanaldia, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren arabera.

c.2.– Langileen zuzeneko kostua justifikatzeko, eskatzaileek 10T eta LZN (Langileen Zerrenda Nominala) ereduak aurkeztu beharko dituzte, bai eta proiektuan diharduten langileen lan-parteeak ere, proiektuan emandako orduak zehaztuta. Proiektuan parte hartzen duten pertsonak bakarrik hartuko dira kontuan.

d) Gastu hautagarrien fakturak aurkeztu beharko dira, kostuen banakapenarekin, jaulkipen-datarekin eta hornitzailearen identifikazioarekin, bai eta ordainketa-agiriak ere, zenbatekoa eta ordainketa-data adierazita.

4.– Ez dira kontuan hartuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikulua betetzen ez duten gastuak, aplikagarria denean, merkataritza-eragiketetan beran-kortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epetegi dagokienez.

5.– Dirulaguntza DEALeko 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera justifikatuko da.

6.– Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzean konpon daitezkeen akatsak daudela ikusten bada, horren berri emango zaio, eta 10 eguneko epea emango zaio zuzentzeko.

7.– Aurkeztutako likidazioari buruzko ebazpena SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotzeko zuzendariak emango du, eta haren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da organo berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epean eta moduan.

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

1.– Deialdi honen babesean ematen diren dirulaguntzen entitate onuradunek 20/2023 Legearen 14., 27., eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak izango dituzte, eta, bereziki, honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrekin lotuta, dirulaguntza eman izanaren ebazpena argitaratutako dataren ondoren hamar eguneko epean, entitate onuradunak ez badio espresuki eta idatziz uko egiten, onartuta geratu dela iritziko zaio.

- b) Jarduera egitea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.
- c) Eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea dirulaguntza ematen duen erakundean eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea. Jarduera hori pertsoneri buruzkoa denean, sexuaren arabera bereizitako datuak sartuko dira.
- d) SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarri guztiak eska ditzakeela onartzea, bai eta SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak izendatutako langileek beren instalazioetan beharrezkotzat eta komenigarritzat jotzen dituzten egiaztapen guztiak egin ditzaketela ere, emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela eta eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- e) Fakturak gordetzea eta SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskura jartzea, faktura egiten denetik bost urteko epean.
- f) Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza-legeriak eta legeria sektorialak eskatutako eran, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.
- g) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.
- h) Jasotako funtsak edo diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaintik lortutakoa itzultzea, DEALen 36. artikuluan jasotako kasuetan.
- i) Hizkuntza eta irudiak ikuspegi intersektionalarekin eta, bereziki, sexuaren eta generoaren alderdiarekin errespetuz erabiltzea dirulaguntzaren xede den jarduerak edo proiektuak behar dituen dokumentazio eta material guztietan.
- j) Herritarren hizkuntza-eskubideak eta, bereziki, euskararen erabilera bermatzea.
- k) Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo Estatuko nahiz Europako Erkidegoko beste kontrol-erakunde eskudun batzuei laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-funtzioak betetzean eskatzen duten informazioa ematea.
- l) SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziari berehala jakinaraztea hemen araututako laguntzen helburu bererako edo antzeko beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo jaso izana.
- m) SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziari jakinaraztea laguntza emateko kontuan hartu den edozein zirkunstantziaren aldaketa.
- n) Zabalduraren programaren laguntza publikoa jasotzen duen edozein sustapen-euskarritan, egoki iragarri beharko da programaren bidez emandako dirulaguntzaren jatorria.
- ñ) Era berean, azoketan parte hartzeko laguntza jasoz gero, ezinbestekoa izango da Euskadi Basque Country marka (Euskadi Basque Country markako logoak, Spri Taldea eta Nazioarteko-zeko Euskal Agentzia) erakustokian eta sustapen-materialietan ikusgai jartzea.
- o) Dirulaguntzaren xede diren programa, jarduera, inbertsio edo jarduketan finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia ematea, gardentasunari buruzko legerian ezarritako eran.

18. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Laguntzaren xede diren jarduketetako bat edo batzuk hasieran aurreikusitako eran gauzatzea eragozten duten salbuespenezko inguruabarrak daudenean, dirulaguntza ematen duen organoak, ofizioz edo interesdunak eskatuta, egoera horren balorazio zehatza egin ondoren, emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki ahal izango du, honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak ez egotea onuradunaren borondatearen mende.
- b) Zenbatekoa ez handitzea.
- c) Benetan egindako edo egingo den jarduera edo jokabidea oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.
- d) Alde baten instantziari erantzunez gero, onuradunak jakin bezain pronto komunikatzea eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik, DEALen 14.e) artikuluan jasotako betebeharra betez.
- e) Aldaketa eragin duten elementu eta inguruabar berriak, hasierako dirulaguntza emateko unean gertatu izan balira, dirulaguntza ukatzeko arrazoi ez izatea, eta aldaketak ez eragitea hasieran onartutako proiektua nabarmen aldatzea.
- f) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

Ez da onartuko aurreikusitako gastuaren gauzatzean izandako aldaketak soilik konpentsatzea, ezta kanpo-merkatuetan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko egutegia doitzera ere, baldin eta aldaketa horiek eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoien ondoriozkoak baino ez badira.

2.– Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DEALen 40. artikuluan aurreikusitakoa jarraituko da.

19. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Entitate onuradunek, ez badute betetzen oinarri hauetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzaren bat, edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako baldintzaren bat, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko dute. Kasu horretan, ordura arte jasotako laguntzen zenbatekoa itzuli beharko diote SPRIri, dirulaguntzen arloan aplikagarri diren berandutze-interesekin batera, eta, behar izanez gero, horiek itzultzeko behar diren legezko ekin-tzak gauzatuko dira.

2.– Nolanahi ere, artikulua honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez-betetzat joko dira honako hauek:

- a) Laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako jarduerak aldatzea SPRIren baimenik gabe. Ez-betetzea izango da, ondorio hauetarako, SPRIri ez jakinaraztea proiektua gauzatzeari izandako edozein aldaketa, baldin eta aldaketa horrek aldatu egiten baditu dirulaguntza emateko orduan SPRIk aztertu zituen baldintzak. Aldaketak baimendu ahal izango dira, baldin eta SPRIri eskatu bazaizkio eta entitate onuradunak justifikatu baditu, ahal den neurrian, proiektuan aplikatu aurretik, eta betiere programa honen bidez lortu nahi diren jardueren eta helburuen izaera indargabetzen ez bada.
- b) Gastu hautagarriak epearen barruan ez justifikatzea edo programa honetan edo laguntza emateko ebazpenean eskatutako baldintzak ez betetzea.

c) Diruz lagundutako proiektua egiteko ezarritako epeak gainditzea, baldin eta epea aldatzeko edo luzatzeko baimenik ez badago.

d) Laguntza programa honetan ezarritako baldintza eta betekizunak bete gabe edo laguntza ematerakoan ezarritakoak bete gabe lortu izana.

e) Programan edo laguntza ematean aurreikusitako edozein kontrol-neurri ukatzea edo oztopatzea.

f) Proiektuaren beste edozein desbideratze edo laguntza emateko ebazpenean xedatutako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

g) 20/2023 Legean aurreikusitako kausak.

3.– Ez-betetzea egiaztatzeko espedientea hastea, izapidetzea eta ebaztea SPRIri dagokio.

4.– Deialdi honetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, eta, besteak beste, DEALen 51. artikulua aplikatuz enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa egiten bada, eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak (halakorik ezartzen bada) betetzen ez badira, laguntza ezeztatu egingo da, eta SPRIri itzuli beharko zaizkio laguntzak eta berandutze-interesak. Berandutze-interes horiek zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira, DEALen 40. artikuluan buruz xedatutakoaren arabera. SPRIren Nazioartekotze Zuzendaritzari dagokio laguntzak ezeztatze eta, hala badagokio, partzialki edo osorik itzultzeko espedienteak hastea eta ebaztea.

5.– Ezarritako baldintzen zati bat betetzen bada, betiere egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko zalantzarik gabe jardun duela, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da, edo, hala badagokio, zati bat itzuli beharko da, eta kalkulaterakoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbateko partziala bat etorriko da emandako dirulaguntzaren benetako eta behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, betiere justifikazioa egiaztatu eta erakunde emaileak onartu ondoren.

Horrela, onartutako proiektuen justifikazioan dirulaguntza emateko onartutako aurrekontuarikiko % 30 baino gutxiagoko beheranzko desbideratzerik gertatuz gero, dirulaguntza berriro kalkulatu da, hasierako emakida kalkulatzeko erabili ziren irizpide berberak aplikatuta.

Era berean, % 30eko edo hortik gorako beheranzko desbideratzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea eragin dezake, laguntza ematea eragin zuten helburuak bete direla justifikatzen den kasuetan izan ezik. Bigarren kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan murriztuko da.

6.– Halaber, programaren xede den jardueraren kostua gainditzen duen laguntzaren zatia itzuli beharko da, baldin eta beste laguntza batzuk metatzeagatik gainfinantzaketa gertatzen bada (10. artikuluan araututa dago), laguntza kobratu ondoren. Kasu horretan itzuli beharreko zenbatekoa gertakaria deklaritzen duen eta itzulketa erabakitzen duen ebazpenean zehaztuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Araudi aplikagarria.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– 20/2023 Legea.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) dirulaguntza arloko oinarrizko legeriari dagokion guztian.

3.– Batzordearen abenduaren 13ko EB 2023/2831 Erregelamendua, de minimis laguntzei Euro-par Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa (EBAO: L-2023-81820).

4.– 28/2022 Legea, abenduaren 21ekoa, Sortzen ari diren Enpresen Ekosistema Sustatzeari buruzkoa (BOE, 2022ko abenduaren 22koa).

5.– 18/2022 Legea, irailaren 28koa, Enpresak Sortu eta Hazteari buruzkoa.

6.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, «DBLO»), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, «DBEO») eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritik, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskaeran oinarrituta, eskatzen den laguntzaren espedientea kudeatzea da, eta datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko SPRIk duen interes publikoa da.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Datuak laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo soilik tratamendu automatizatuan oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, idatzizko komunikazio baten bidez, helbide elektronikoa honetara idatzita: lopdp@spri.eus Interesdunak, era berean, datuak babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatziz, helbide elektronikoa honetara idatzita: dpd@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta, SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Autoritatea izango da: www.avpd.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/es/aviso-legal/privacidad/web-orrialdeko-pribatutasun-politikara>.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

0 ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUAREN EDUKIA

[izen-abizenak] jauna/andreak (NAN zk.: [...], indarrean dagoena), [sozietate eskatzailearen izena] ordezkatzuz, (IFZ: [...] eta helbide soziala: [helbidea]).

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

I.– Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

(i) Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen-instalazio bat du.

(ii) Eskabide honetako dagokion atalean honako alderdi hauei buruzko informazioaren zerrenda erantsi da:

a) Aurreko hiru urteetan emandako de minimis laguntzak. Emate-data, erakundea, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazi dira.

b) Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak. Bertan adierazi da laguntza hori noiz eskatu zen eta, hala dagokionean, noiz eman zen, zein erakundek eman zuen, zein programaren barruan eta laguntza zenbatekoa izan zen.

(iii) Eskabide honetako dagokion atalean, eskatzailearen tamaina zehazteko informazio-zerrenda aurkezten da, bai eta, hala badagokio, startup-izaera justifikatzeko ere.

(iv) Konpromisoa hartzen du enpresa ez deslokalizatzeko DEALen 49. artikuluan adierazitako eran.

(v) Konpromisoa hartzen du gainfinantzaketarik ez egiteko DEALen 9.4.h) artikuluan adierazitako eran.

(vi) Ez da sektore publikoren batekoa edo sektore horretako kide, aplikatzekoak diren sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

(vii) Ez dago DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean; hau da:

a) Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso izana; edo prebarikazioarekin, funtzionario-eroskeriarekin, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearekin, influentzia-trafikoarekin, iruzurrekin eta legearen aurkako ordainarazpenekin lotutako delituengatik edo delitu urbanistikoengatik zigorra jaso izana.

b) Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat jo izana, konkurtsoan deklaraturata egotea (hitzarmen bat eragingarri bihurtu denean izan ezik), esku-hartze judizial baten mende egotea edo 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak xedatutakoaren arabera ezgaituta egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitze-aldia amaitu gabe egonda.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana kausaren batean erruduntzat jo dutela eta.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona fisiko batzuen legezko ordezkariak direnak honako lege hauek jasotako kasuren batean sartuta egotea

bateraezintasuneko erregimenari dagokionez: Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargudun Publikoen Interes Gatazkak eta Jokabide Kodea arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo Hauteskunde Erregimen Orokorreko 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutako hautetsia izatea, gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan edo lege horretan ezarritako baldintzen arabera.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea araudiak zehazten duen moduan.

f) Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean ez izatea araudiak zehazten dituen baldintzetan.

h) Ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta egotea, lege honen edo beste batzuen arabera. Zehazki, ezin izango dira dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan dagokion zehapenean ezarritako aldian sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

i) Pertsona fisiko edo juridikoa, publiko edo pribatua, Ekonomia Zirkular baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larriagatik administrazio bidean ebazpen irmo bidez zigortuta egotea, dagozkion neurri zuzentzaileak bete eta zehapena ordaindu arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete ez izana, kuota hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

(viii) Ez dago laguntzak berreskuratzeko agindu baten mende Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren.

(ix) Ez du egin, bultzatu edo sustatu LGTBIfobia, barnean dela bihurketa terapiak sustatzea edo egitea, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legean ezarritakoaren arabera.

(x) Ez da aritzen Europako Segurtasun Estrategian sartzeko ez den armamentu edo erabilera militarreko teknologia ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen.

II.– Aurreko I. atalean egindako adierazpena betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa duela, Administrazioaren esku jarriko duela hala eskatzen zaionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak betetzen jarraitzeko bere eskubidea aitortzeari edo baliatzeari dagokion aldian.

III.– Badakiela adierazpen honekin batera dagoen edo gehitzen zaion edozein datu, adierazpen edo dokumentu zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari aurkeztu ez bazaio, ezinezkoa izango dela dena delako eskubidea baliatzen edo jar-

dueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua 4. apartatua ezarritakoaren arabera.

[...] Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.

I. ERANSKINA

AURKEZTUTAKO PROIEKTUA BALORATZEKO IRIZPIDEAK ETA
HAZTAPEN-FAKTOREAK

A) ETEen kasuan (4.1 eta 4.2 artikulua).

	Haztapena
1. irizpidea: Nazioartekotzeko proiektua Dirulaguntzaren eskabidearen barruan dagoen nazioartekotze-proiektuaren kalitatea (4. eranskina).	55
2. irizpidea: Ingurunearen gaineko eragina EAEko enpleguan izango duen eragina kontuan hartuko da (2025etik 2024ra bitarteko igoera) % 10 baino gehiagoko igoera Sendotzea; <= % 10eko igoera; edo % 5eko edo gutxiagoko murrizketa % 5etik gorako murrizketa	15 15 10 0
3. irizpidea: Gizarte Konpromisoa eta Jasangarritasuna Ingurumen-jasangarritasuneko, genero-berdintasuneko, euskararen sustapeneko edo erantzukizun sozial korporatiboko bi ziurtagiri edo plan edo gehiago Ingurumen-jasangarritasuneko, genero-berdintasuneko, euskararen sustapeneko edo erantzukizun sozial korporatiboko ziurtagiria edo plana	10 10 5
4. irizpidea: ETEaren jardura-sektorea Eusko Jaurlaritzaren 2030erako Industria Planeko Hazi-Irabazi sektoreetako kide izatea (automobilgintzako osagaiak, mugikortasun jasangarria, fabrikazio aurreratua, energia eta metalurgia, aeroespaziala, biosanitarioa, soluzio digital aurreratuak, sare adimendunak eta biltegiatzea, erregai berriztagarriak). Beste sektore batzuk	10 10 0
5. irizpidea: Merkatuak dibertsifikatzea Eskatzaileak hautatutako merkatuak hartuko dira kontuan. Eskatzaileak eskabidean jasotzen diren merkatuetara esportazioen % 10 baino gutxiago bideratzen du. Eskatzaileak eskabidean jasotzen diren merkatuetara esportazioen % 10 eta % 20 artean bideratzen du.	10 10 5
	100

B) Elkarte eta partzuergoen kasuan (4.3.1 eta 4.3.2 artikulua):

	Haztapena
1. irizpidea: Nazioartekotzeko proiektua Dirulaguntzaren eskabidearen barruan dagoen nazioartekotze-proiektuaren kalitatea (4. eranskina)	55
4. irizpidea: Elkartearen/partzuergoaren sektorea Eusko Jaurlaritzaren 2030erako Industria Planeko Hazi-Irabazi sektoreetako kide izatea (automobilgintzako osagaiak, mugikortasun jasangarria, fabrikazio aurreratua, energia eta metalurgia, aeroespaziala, biosanitarioa, soluzio digital aurreratuak, sare adimendunak eta biltegiatzea, erregai berriztagarriak). Gainerako sektoreak	15 15 0

2026ko uztailaren 6a, astelehena

	Haztapena
6. irizpidea: Elkartearen/partzuergoaren ingurunean duen eragina EAEn izango duen eragina aztertuko da. EAEn ekoizpen-instalazioak dituzten enpresa elkartuen edo partzuergoaren kide direnen kopurua >% 10 handitzea (2025eko hazkundera 2024koaren aldean) Sendotzea; EAEn ekoizpen-instalazioak dituzten enpresa elkartuen edo partzuergoaren kide direnen kopurua <=% 10 handitzea (2025eko hazkundera 2024koaren aldean) Enpresa elkartuen edo partzuergoaren kide direnen kopurua murriztea (2025eko hazkundera 2024koaren aldean)	20 20 10 0
7. irizpidea: Ekimen jasagarrietan parte hartzea Entitate onuradunaren buruak Global Compact edo Munduko Itunean bazkide dela egiaztatzen badu. Entitate onuradunaren buruak Global Compact edo Munduko Itunean bazkide dela ez badu egiaztatzen.	10 10 0
	100

II. ERANSKINA

DIRUZ LAGUN DAITEKEEN GEHIENENKO GASTUA, GASTU/EKINTZA MOTAREN ARABERA

Kategoria	Gastu/ekintza tipologia	Gehienekoa tipologiaren arabera (banakako ETEak)	Gehienekoa tipologiaren arabera (4.3 artikulua onuradunak)	
A- Nazioartekotzeko plangintza estrategikoa eta egokitzapena	a.1. Nazioartekotze-estrategia	20.000	20.000	
	a.2. Jabetza industrialari eta homologazioei lotutako gastu osoa	40.000	40.000	
B- Nazioarteko sustapenaren gastuak	b.1. Nazioarteko azokei, foro espezializatuei eta kongresuei lotutako gastuak	Nazioarteko azokak, erakusketari gisa parte hartzea	40.000/azoka bakoitzeko	80.000/azoka bakoitzeko
		Nazioarteko azoketara, foro espezializatueta eta kongresuetara online bisita egitea edo parte hartzea	5.000/online bisita edo parte-hartze bakoitzeko	5.000/online bisita edo parte-hartze eta parte-hartzaile bakoitzeko
	b.2.– Bidaia-gastuak	Bidaia-poltsa III. eranskina	Bidaia-poltsa III. eranskina	
	b.3 Komunikazio- eta marketin-gastuak	50.000	50.000	
C- Kanpoko ezarpenak	c.1. Merkataritza- eta ekoizpen-ezarpenei lotutako gastuak + c.2. Langileak hautatzeko gastuak + alokairua eta hornidurak	40.000	0	
D- aholkularitza operatiboa	d.1.– Azterlanak eta txostenak egiteko kanpo-aholkularitzako gastuak	20.000	20.000	
	d.2. Prospekzio-jardueretarako kanpo-aholkularitzako gastuak + beharrezkoak diren beste batzuk	10.000	10.000	
E- Barneko orduak	Nazioartekotze-proiektuko jardueretan parte hartzeko barne-orduen kostua	10.000	0	
F- Merkataritza-agenteak eta -ordezkariak.	Merkataritza-agenteen eta -ordezkarien kostuak	10.000	10.000	
G- Proiektu pilotuen gastuak	– Proiektura bideratutako langileen zuzeneko kostuak. – Proiektuarekin zuzenean lotutako materialen eta horniduren kostuak. – Makinak edo osagaiak garraiatzeko eta instalatzeko kostuak. – Ziurtapen-espeditenteak proiektua amaitzean. – Kontzeptu-probekin lotutako gastuak.	30.000	0	
H – Elkarleen/partzuergoen gastuak	h.1 Eraketa-gastuak	0	5.000	
	h.2 Taldearen funtzionamendu operatiboarekin lotutako gastuak	0	20.000	
	h.3 Egitura-gastuak	0	40.000	
	h.4 Nazioarteko lizitazioetan eskaintzak prestatzeko gastuak	0	10.000	

III. ERANSKINA

BIDAIA-POLTSAK

Eremua	Zenbatekoa (euro)
Europa	1.500
Ekialde Hurbila	2.500
Asia	2.800
Ipar Amerika	3.000
Erdialdeko Amerika	2.400
Hego Amerika	2.500
Magreb	1.250
Afrikako gainerako herrialdeak	2.500
Ozeania	3.000

IV. ERANSKINA

NAZIOARTEKOTZEKO PROIEKTUA

4.1.– Gaitasuna. Gehienez 6 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 1.5, Onargarria = 3, Ona = 4.5, Bikaina = 6).

– Gizataldearen gaitasunak.

- Nazioartekotzerako eskuragarri dagoen gizataldearen gaitasunak.

– Ekoizpenerako/logistikarako gaitasuna.

- Banaketa-ahalmen produktiboa eta logistikoa aztertzea, merkatu berriaren eskaerei behar bezala erantzuteko. Zerbitzu-enpresen kasuan, enpresak bere taldeko pertsonekin nazioarteko proiektuak edo zerbitzuak gauzatzeko duen gaitasuna.

– Ekoizpen-lekua.

- Enpresaren ekoizpen-lekua(k) adieraztea. Egiten duen produkzio-prozesua zehaztuz.

– Ingurune globala.

- Sektorearen azterketa ingurune globalean.

– Proiektuaren herrialdea.

- Proiektuaren herrialdeko sektorearen azterketa.

– Nazioarteko merkatuen aurreko egoera (AMIA).

- Ahuleziak.

- Mehatxuak.

- Indarguneak.

- Aukerak.

4.2.– Merkatuak. Gehienez 4 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 1, Onargarria = 2, Ona = 3, Bikaina = 4).

– Kontuan hartutako beste merkatu batzuk.

- Zer herrialde hartu dituzu kontuan helburu den herrialdea aukeratu aurretik? Zer faktore izan dira erabakigarriak hautatutako herrialdea lehenesteko?

– Arriskuak.

- Identifikatu al dituzu aukeratutako herrialdean izan daitezkeen arriskuak (politikoak, ekonomiakoak, sozialak)? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zein.

– Bezero objektiboa.

- Zehaztu zer bezero motatara joko duzun aukeratutako herrialdean, eta, hala badagokio, adierazi zer desberdintasun dauden bezero nazionalarekin. Bezero potentzial gutxi edo asko dituzu aukeratutako herrialdean? Eta aurretiko harremana?

- Helmugako lehia.
 - Ba al duzu herrialdeko sektoreko lehiakideei buruzko informaziorik? Asko ala gutxi dira? Enpresa berriak edo produktu lehiakideak sartzeko mehatxurik ba al dago?
- Hornitzaileak.
 - Ba al duzu informaziorik gaur egungo eta etorkizuneko hornitzaile posibleei buruz?
- 4.3.– Sartzeko moduak. Gehienez 6 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 1.5, Onargarria = 3, Ona = 4.5, Bikaina = 6).
 - Helmugako herrialdean sartzeko edo iristeko zer modu desberdin erabiliko dituzu? Zergatik?
- 4.4.– Produktua/zerbitzua. Gehienez 8 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 2, Onargarria = 4, Ona = 6, Bikaina = 8).
 - Produktuak/Zerbitzuak.
 - Zer produktu/zerbitzu hautatu dituzu aukeratutako herrialdean sartzeko?
 - Eskariaren / merkatu-kuotaren azterketa.
 - Aukeratutako herrialdean produktu/zerbitzuen eskaera nahikoa al dago lehiaren eskaintza kontuan hartuta? Zein da lortu nahi den merkatu-kuota potentziala?
 - Produktuak/zerbitzuak erosteko arrazoiak.
 - Zergatik aukeratuko dituzte herrialdeko bezeroek zuen produktuak/zerbitzuak? Eskaintako irtenbidearen prezioa, kalitatea, saldu osteko zerbitzua, esperientzia, egokitasuna? Zer beste arrazoi izan daitezke?
 - Produktuak/zerbitzuak behar duen egokitzapena.
 - Beharrezkoa al da hautatutako produktuak/zerbitzuak herrialdearen ezaugarrietara egokitzea? Erantzuna baiezkoa bada, azaldu nola egingo den egokitzapen hori.
 - Muga-zergen / legeen oztopoak.
 - Adierazi herrialdean sartzeko muga-zergen edo legeekin lotutako oztopoak. Gainditu al dira oztopo horiek? Hala ez bada, oztopo horiek gainditzeko zer fasetan dago?
 - Oztopo teknikoak.
 - Adierazi herrialdean sartzeko oztopo teknikoak (homologazioak, behar diren ziurtagiriak edo bestelakoak). Eskuratzeko aurreikusitako data.
 - Prezioen politika.
 - Prezio-politika desberdina ezarri al da merkatu berrirako? Esportazio-prezioa kalkulatu duzu? Herrialdeari eta produktuari lotutako zer faktorek eragin dute prezio horretan?
- 4.5.– Sustapen-politika. Gehienez 8 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 2, Onargarria = 4, Ona = 6, Bikaina = 8).
 - Merkataritza-ekintzak eta sustapen-bitartekoak.
 - Zer merkataritza-jarduera egingo dira? Zer sustapen-bitarteko erabiliko dituzu herrialde berrian zeure burua eta produktua/zerbitzua ezagutarazteko?

– Helmugako bitartekoetara egokitzea.

• Nola egokitu dira sustapen-bitartekoak aukeratutako herrialdera? Egokitutako zer merkataritza-dokumentazio prestatu da?

– Diruz lagundutako bitartekoak.

• Erakunde publikoek antolatutako sustapen-bitartekoez baliatzeko edo horietan parte hartzeko aukerarik ba al duzu, hala nola misioak, sustapen-bidaiak, enpresa-topaketak? Erantzuna baiezkoa bada, zeinetan?

4.6.– Proiektuaren kalitatea eta egingarritasuna. Gehienez 4 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 1, Onargarria = 2, Ona = 3, Bikaina = 4).

– Helburuak.

• Proiektuaren helburuak.

– Plangintza.

• Proiektuaren plangintza: proiektuaren faseak, ekintzak eta epeak ezartzea.

– Proiektuko taldea.

Aginte-koadroa.

4.7.– Eskatzailearengan duen eragina. Gehienez 4 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 1, Onargarria = 2, Ona = 3, Bikaina = 4).

ETEen kasuan:

– Fakturazio/esportazio aurreikuspena.

• Fakturazio orokorra.

• Proiektuari zor zaion fakturazioa.

• Esportazioa.

• Proiektuari zor zaion esportazioa.

– Plantillaren aurreikuspena.

• Guztizko enplegua.

• Proiektuaren ondorioz sortutako enplegua.

• Proiektuaren ondorioz eutsitako enplegua.

– Aurreikuspen kualitatiboa.

• Enpresaren lehia-posizioan duen eragina.

• Sortutako enpleguaren tipologia: (kalitatea, berdintasuna, etab.).

Legez eraturako eta berezko nortasun juridikoa duten elkarte eta partzuergoen kasuan:

– EAEn ekoizpen-instalazioa duten enpresa parte-hartzaileen kopuruaren aurreikuspena.

• Enpresa parte-hartzaileen kopuruan duen eragina.

– Aurreikuspen kualitatiboa.

• nola laguntzen du proiektu honek ekintza bateratuetan parte hartzen duten enpresen kopurua handitzen?

4.8.– Ingurunearen gaineko eragina. Gehienez 4 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 1, Onargarria = 2, Ona = 3, Bikaina = 4).

– Trakzio-efektua / Eragina lehiakortasunean.

• Trakzio-efektua / Eragina lurraldearen lehiakortasunean.

4.9.– Koherentzia estrategikoa. Gehienez 11 puntu (Nulua = 0, Eskasa = 2,5, Onargarria = 5,5, Ona = 8, Bikaina = 11).

– Enpresak nazioartekotze-proiektuari ekiteko duen gaitasuna hartuko da kontuan, azken bi ekitaldietan izan duen bilakaerari, fakturazioaren hazkundeari eta esportazio-ibilbideari erreparatuta.

V. ERANSKINA

KONPROMISO SOZIALEKO ETA JASANGARRITASUNEN ZIURTAGIRIAK

- Ingurumena (1).
 - EMAS III ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - ISO 14001 ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - Ekoscan ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - ISO 14006 ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - ISO 14064 ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - UNE 22470 ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - UNE 22480 ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
 - Erronka Garbia ziurtagiria.
- Berdintasuna eta kontziliazioa (2).
 - Berdintasun-plana, Emakunderen metodologiaren arabera (data, balio-aldia).
 - Kontziliazio-plana (data, balio-aldia).
 - EFR ziurtagiria (lorpen-data, azken berritzea).
- Euskara (3).
 - Bikain ziurtagiria (maila, lortutako data, azken berritzea).
 - Bai Euskarari ziurtagiria (maila, lorpen-data, azken berritzea).
 - Euskara Plana (data, balio-epa).
- Erantzukizun Sozial Korporatiboa eta Jasangarritasuna (4).
 - Global Compact erakundeko kide izatea, 2030 Agendaren 17 GJHekiko atxikimendua adierazteko.
 - Eusko Jaurlaritzaren GJH plataformako kide izatea.
 - ISO 26000 auditoretza (badu, eskuratze-data, azken berritzea).
 - IQNet SR10 ziurtagiria (badu, eskuratze-data, azken berritzea).
 - SGE 21 ziurtagiria (badu, eskuratze-data, azken berritzea).
 - UNE 165010:2009 EX ziurtagiria (badu, eskuratze-data, azken berritzea).
 - Xertatu (ekintza-planaren data, azken ebaluazioaren data).
 - SA 8000.
 - Azken 3 urteetako batean edo batzuetan BEINT programaren esparruan gazteak nazioarteko-tzearen arloan prestatzen lagundu izana.
 - Beste ziurtagiri baliokide batzuk.